

Vitoria Gasteiz 2008ko abenduaren 23an

Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetarako dokumentazioa eguneratu du eta itsuek eta aldi baterako atzerrian bizi direnek bozkatzea erraztu du

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetako hautestontziak, kabinak, boto-txartelak, gutun-azalak eta hauteskundeetarako dokumentazioa arautzen dituen Dekretua onartu du gaur Vitoria Gasteizen.

Onarturiko testuak orain arte sakabanatuta egon den araudia biltzen du eta itsuen bozkatzea errazteko berrikuntzak eta aldi baterako atzerrian bizi direnei berariaz zuzenduriko posta bidez bozkatzeko prozedura bat gehitzen ditu.

Agiriak hautestontzi eta kabinen ezaugarriak zehazten ditu, baita berauen zigilatze eta Hauteskunde Mahaiko Lehendakartzaren esku uzteko era ere. Dekretuak Herrizaingo Sailari boto-txartelak eta beste inprimaki batzuk egin eta banatzea agintzen dio.

Onarturiko arauak hautesle itsuek edo ikusmen ezintasuna dutenek sufragiorako eskubidea aurrez aurre eta iristeko moduan erabil dezaten beharrezko ekintzak ere agintzen dizkio Herrizaingo Sailari. Horretarako, braille hizkuntzan idatzitako agiriak egingo dira.

Aldi baterako atzerrian bizi diren ikasle eta beste batzuek bitora iristeko modua hobetuta izango dute kontsulatuaren bitartez izapidetuko den posta bidez bozkatzeko dokumentazio berri baten bidez.